

# Euskal Herriaren erronka: bidegurutzetik irabaz bidera

ZUTABE hau argitaratzen du ETAK aspaldiko partez. Noiz eta Euskal Herrian aro berri bat zabaltzen ari denean, zabaltzen ari garenean. Ezker abertzaleak abian jarri duen aro politikoa helburu argia du: Euskal Herria bidegurutzetik atera eta irabaz bidean jartzea

**E**uskal Herrian aro berri bat zabaltzen ari da. Horrela onartzen dute egun indar politiko gehienek. Jakina, aro berriaren ezaugarritzea zehazterakoan, nor bere neurriko irakurketa egiten duelarik. ZUTABE honetan aro berria aztertuko dugu, nola sortu den eta nola kokatzen duen ETAK. Eta ETAK izan duen ibilbide historikotik eta hilabeteotan hartu dituen erabaki garrantzitsuen kokapenetik egingo dugu. Lehenak, ezker abertzaleren eta herritar ugariaren ahaleginarekin batera, askatasunaren aldeko borrokan urrats berriak emateko baldintzak sortu dituelako. Bigarrenak, ezker abertzale osoak egindako apustuari eta Euskal Herriaren sortzen ari den egoera politikoiari bultzada nabarmena eman diolako.

Bada, Urkullu bezala, ezker abertzaleak emandako urratsak ibilbide oso baten porrota dela esan duenik. Nonbait, ezker abertzaleak kale egin du duela 50 urteik gora abiatu zuen estrategian. Ezker abertzaleak ez duela irabazi agerikoa da. Bestela Euskal Herria herri aske gisa agertuko zen munduko mapetan. Herri zapaldua da, herri ukatua, eta eguneguz egun pairatzen du zapalkuntza horren ondorioak.

Ez dugu irabazi, baina milaka gizon-emakumek esfortzu eta sakrifizio handiaz egin dugun borroka ez da alferrikakoa izan. Borroka horri esker Euskal Herriak bizirik dirau eta zabalik du, oraindik orain, irabazteko aukera.

Ezin daiteke esan, bestalde, PNVk, alderdi interesetatik begiratuta, bere estrategian galdu duenik. Ez behintzat kudeaketa autonomikoari atera dizkioten etekinei edo Imaz, Ardanza eta gisakoek politikagintzatik pasa eta gero poltsikoratu duten dirutzari erreparatzen badiegu. Euskal Herriarentzat, orde, estrategia antzua izateaz harago, bizirauteko aukera galbidean ere jar zitekeela erakutsi da urteotan. Autonomismoak egin du porrot, Euskal Herriaren etorkizunaz ari bagara.

Irabazteko aukera zabalik eta Euskal Herria zapaltzen duen eredu higaturik heldu gara une historiko honetara,

bidegurutzera. Alabaina, irabazteko xedez sortu zen ezker abertzaleak, Independentzia eta Sozialismoa helburu duen aldaketa politiko eta sozialerako bidea marraztu eta egituratzearen erronkari heldu behar dio luze gabe. Horretan oinarritzen da ezker abertzale osoak egin apustu politikoa: herri indarrak antolatuz eta estrategia eraginkor baten bidez, aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko tresna den prozesu demokratikoa eraikitzea. Jakina, bide horretan estatuen itxikeriari eta errepresioari aurre egitea ere ezinbesteko zeregina izango da datozen hilabeteotan. Bai eta herri egiten gaituzten zutoinen eraikuntzan eguneroko txinaurri lanean jarraitzea.

Emandako urratsek lehenengo lorpenak eskuratu ditu jada. Batetik, estatuek zokoraturik nahi zuten ezker abertzaleak inizatiba politikoa hartu eta agenda politikoa markatzen du egun. Bestetik, Euskal Herriaren aldeko indarrak antolatzen hasiak dira eta, gero eta gehiago, Espainia eta Frantziaren bidegabekeriari aurre egiten ari dira.

Egiatzapen honek, hala ere, ez gaitu itsutu behar, luzea baita oraindik ibili beharreko bidea.

Hortaz, garaiok ez dira begira egotekoak, alderdien arteko elkarrizketak noiz abiatuko, akordioak noiz erdietsiko eta estatuek noiz errespetatuko. Ez horixe. Hori guztia gertatuko da, baldin eta indar nahikorik egiteko gai bagara. Eta, gaur atzo bezala, egunero egiten dugun borroka eta ahalegina izango da arrakastarako giltza.

Euskal Herriak aktibo behar du izan. Urteotan asimilazioa garaitzeko edota Euskal Herriaren eraikuntzan metatu den indar eta esperientzia guztia bilduz, eta belaunaldi berriek dakarten haize freskoa eta grina gehituz, estatuek eraiki duten harresia bota eta askatasunerako bidea jorratu nahi badugu.

Indar nahikorik du Euskal Herriak erronka handiei heltzeko, urteotan erakutsi izan duenez. Ez da bide erraza izango, ez eta oztoporik gabekoa. Alabaina, gure indarretan siniztuz eta borrokaren bidez, lortuko dugu!